

...eta **kitto!**

810 zkia. 2012-VI-15

ASTEKARIA

RAMON BEITIA

Bestelako errealitatearen SORTZAILE




Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34

F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com



DOKTOREAK:

Antonio Murillo / Ainhoa Zulueta / Susana Sierra / Maitane G. Iñiguez

**Kasu konplexuetako
eta hezur eta
hortzoi gabeko
inplantologian
ADITUAK**

**PUNTA-PUNTAKO
inplantologia,
OSTEOINKORPORAZIO
teknika BERRIA
erabiliz**



Inplantologia





ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostegunera:

10-14 / 16-20h

Ostiraletan: 10-14 / 15-19h

*Prezio
berezia!!!*



Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



IRAZABAL
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com**Elkartearen E-MAILak:**elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Maider Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIAK:**

Ramon Beitia

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

IRIZIL.- Zigorra. Gaztelera 'vergajo, látigo'. "Asko dira esaten dabenak, irizilla bihar dala... bestientzat".**IRRARA/IRLARA.-** Txorien kantua. "Gure txorixak jotzen dituan irrarak goizaldian entzutekuak dira".**IRRINTZIXA JO.-** Irrintzi egin. "Irrintzi luze bat joixozue han doiazan neska-mutilleri".

ESKUTITZAK

UDALA LAPURRETAN BERRIRO

Ugari dira gaur egun bizitza duin bat izateko ordaintzen ditugun tasak. Eta ugari, baita ere, bizitza duinetik haratago, luxuzko bizitza izatearren batzuek lapurtzen diguten dirua. Metro karratua m² omen, Udalak metro karratua **20 euro** ulertzen dituen arren. Aurten, berriz ere, Jaixak Herrixak Herrixandako batzordiak txosna ipintzeko hautua egin du, diru-sarerra handiena bertatik lortzen baitu. Eta aurten, berriz ere, udalak txosnak duen metro lineal bakoitzeko 20 euro lapurtu nahi dizkigu. Txosnak 8 metro lineal dituela kontuan harturik, eta metro bakoitzeko eta eguneko 20 euro eskatzen dituztela jakinda, **480 euroko** tasa ordaindu beharko du jai euskaldun, parekide,

parte-hartzaile eta herrikoien aldeko apustua egiten duen eragileak. Matematikan txarra denarentzat eta bidean galdu denarentzat, hau da eragiketa, labur esanda: 8 m. x 3 egun = 24; eta 24 x 20 euro = 480 euro. Edo **Udala = Lapurra**. Udalak aukeraketa egin du: ez duenari kentzeko aukera. Eta oker dabil. Udalak bizitza duinetik haratago luxuzko bizitza izan dezan, herriarekin eta herriarentzat lana egiten duen eragile bati 480 euro lapurtuko dizkio. Guk, Jaixak Herrixak Herrixandako direla sinisten jarraitzen dugu hala ere eta, horregatik, euroz mozturatu ordez, nahiago Eibarko kaleak irribarrez eta kolorez jantzi.

JAIXAK HERRIXAK HERRIXANDAKO

ESKERRIK ASKO URKITIK

Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu Urkiko jaietan "Txiki-krosa" eta "Galdaramiño" mendien lasterketa"n lagundu diguten guztiei: Urki-ko Jai Batzordea, Eibarko Udala, Eibarko K.D. (Mendia eta Atletismo batzordeak), DYA, Bar Cepa, Eskarne jate-xtea, Frupi, Euskaltrail.com, Kirolprobak.com, Sailka-

penak.net., Ser, Bizkaia eta Arrate Irratia, Barren eta ...eta kitto! astekariak eta, batez ere, bolondresei, eurak gabe ez baitzen posible izango kirol ekintza horiek antolatzea. Mila esker ere parte-hartzaileei eta hurrengo urtera arte!

GALDARAMIÑO ML ANTOLAKUNTZA

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Datorren astean, Sanjuanak direla-eta, egun batean aurreratu eta eguenean, **hilaren 21ean**, kaleratuko dugu jaietako ale berezia. Hori dela-eta, zorian-agurretarako eta beste edozein informazio jasotzeko azken eguna hilaren 19a izango da. **Barkatu eragozpenak**. Bestalde, **Bixamona** jaietako argazkiekin ateratzen dugun ale berezia hilaren 28an izango da kalean.

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Hego Euskal Herriaren datu makroekonomiko guztiak Espainiakoak halako bi baino hobekak dira eta litekeena da, ikuspegi kapitalista huts batetik ikusita bada ere, horrek independentziaren alde jotzea. Europako Batasuna berriz sortuko da, beste parametro batzuetan eta Alemaniari askoz gehiago interesatuko zaio, epe erdira, Euskal Herri eta Katalunia independenteak, Espainiako zulo beltza baino."


(Gabirel Ezkurdia, politologoa)

"Besoa luzatzean tira egiten dit eta ezin dut ukondoa erabat askatu. Kolpea askatzean besoa bildu egiten zait. Sasoi onenean egonda ere, zaila da Bengoetxeari irabaztea, eta orain nagoen bezala, oso-oso zaila"

(Aimar Olaizola, pilotaria, Bengoetxea 22-5 egurtu bezperan)

"Esan nirekin, Raxoy jauna: e-rres-ka-te-a. Leun-leuna, baina e-rres-ka-te-a. Ondo dago onartzea"

(Rosa Díez, UPyDko bozeramailea)

EIBARKO
UDALAGIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

asteko
1.500
datua

zotal edo tepe ipiñi barri dittu Udalak lorekin uda sasoirako. Egindako inbersiñua 28.000 eurokoa izan da herrixa dotoretzeko guztira 3.000 ontzi erabili dittuan proiektuak, 16.000 landarekin.

Andrak kaliak hartzeko prest

BIXAR ANDRAZKUEN SORKUNTZARAKO ETA SORKUNTZA FEMINISTARAKO eguna izango da eta, horren harira, Atakapa talde feministak hainbat jarduera antolatuta dittu: 10.30xetatik 14.00etara anbulatorixo pareko parkian muralak margotzeko panelak eta txapa, serigrafixa eta plañtilla taillarrak egongo dira martxan, musika eta hamaiketa-kuarekin batera.

Feminismua kontu kontari

BIXAR FEMINISMUARI ESKINDUTAKO JARDUNALDIXA HARTUKO DAU Gaztetxiak 17.00etatik aurrera: *“Gaztetxia andrazkuendako espazio berezixa billakatuko da, bertan feminismuaz berba egitteko batuko gara-eta. Generaziño diferentiak bizi izandako esperientziak ezagutzeko eta alkartrukatzeko aukeria izango dogu eta alkarrekin gaur egungo egoeriaren gaiñian zeñ etorkizunari buruz jardungo dogu”.*



Policlínica Gipuzkoa Ibarkurutzen zabalik

AURREKO BARIKUAZ GEROZTIK POLIKLINIKA GIPUZKOK KONSULTA-ZENTRO BARRIXA daka Eibarren, Ibarkurutzen. Osasun zentro barrixak 11 espezialidade, diagnostikueterako probak, analisi klinikuak eta konsultak eskintzen dittue eta, horrez gain, sendaketa-gelia eta erradiologixak, mamografixak eta ekografixak (ginekologikuak eta bularraldekuak) egitteko ekipamientua be badakaz. Zerbitzu guztiak Policlínica Gipuzkoarekin normalian biharra egitten daben aseguru-konpaiñia eta mutua nagusixekin hitzartuta dagoz. Hortik aparte, herritar guztieri zabalik daguazen osasunari lo-




tutako hitzaldixak antolatzen dittue eta lehelengua aste honetan bertan Portalean eskindu dabe Ignacio Gallo zirujano kardiobaskularrak eta Eduardo Alegria kardiologuak.

Debabarrenerako alternatiba ekonomikua

ASTELEHENIAN DEBABARRENERAKO ALTERNATIBA EKONOMIKUA EMON EBEN eza-gutzera alderdi abertzalietako ordekarixak Armerixa Eskolian. Euren berbetan, *“mundu maillako krisixak Debabarrenian be eragiña izaten*

dihardu eta, batzuk krisi hau ekonomikua dala badiñue be, guretako sistemien krisixa da. Horregaittik, alternatibia presentatzeko arazuaren sustarretara jo dogu”. Eskualdian 3.790 lagun lan barik egotiarren larrittasuna azpimarratziarekin batera, egoeriarri bueltia emoteko hainbat proposamen presentau zittuen astelehenian: bestiak beste politika fiskala kanbixatzia (soziedadien gaiñeko zerga berreskuratzia, oiñordetzen gainekua ezartzia, PFEZren aldaketia...), azpiegitura haundixen gaiñeko eztabaida sortzia holan premiñazkua ez dan gastua murrizteko eta lanpostuak sortzeko ekonomixia dibersifikatzia jaso dittue proposamen-zerrendan.



Arbasoen Deia bisita programa barrixa

DEBEGESAK, DEBANATURA ALKARTIAREKIN BATERA, ARBASOEN DEIA BISITA-GIDATU PROGRAMA BARRIXA ipiñi dau martxan. Ekain, Praileaitz, Astigarraga kobazulua, Ermittia, Arbil, Arriola ingurua, Karakate, Makiña-Erremintaren Museua eta beste hainbat eza-gutzeko hiru ibilbide proposatzen dittue: Dolmenen Ibilbidia, Paleolitiko Ibilbidia: Ekañ eta Praileaitz eta Burdiñolen Ibilbidia Deba Ibaian. Lehelengo bisita-gidatua bixar egin-go da: Debanaturako kidiak lagunduta eta Dolmenen Ibilbidiarri jarraituta artzaiñen kulturaren aztarna adierazgarrixenak, trikuharrixak eta tumuluak ezagutuko dittue bisitariak. Ibilbideak batez be oiñez egittekuak eta




7-10 urtetik gorako haurrendako be gomen-dagarrixak dirala diñue antolatzailliak. Kalendarixua eta bestelakuak www.debabarrena-turismo.com webgunian dagoz eta erreserbak egitteko 943191172 / 695783656 telefonuetara deittu edo debanatura@hotmail.com helbidera idatzi leike.

Aznarez eibartarra apezpiku laguntzaille izendatu dabe

BENEDICTO XVI.A AITTA SANTUAK OIÑ ARTE IRUÑEA ETA TUTERAKO ELIZBARRUTIKO BIKARIXO nagusixa izan dan Juan Antonio Aznárez eibartarra bertako apezpiku laguntzaille izendatu barri dau. 1961eko urtarrillaren 14an Eibarren jaixotakua, 13 urte zittuala Tuterara bizi izatera jua zan eta Zaragozako Unibersidadian Filosofixa eta Letratan lizentzia zan 1984an. Eliza-ikasketak Iruñeako Semi-

narixuan egin zittuan eta 1990eko urrixaren 27xan apaiztu zan. Horrez gain, Erromako Institutu Biblikuan Zientzia Biblikuetan lizentzia zan 1997xan. Mendabian, Huarterlruñean eta Zizur Txikixan hainbat parrokittan biharrin jardun ostian. 2009ko ekaiñaz geroztik Iruñea eta Tuterako elizbarrutiko bikarixo nagusixa izan da. Hortik aparte, Eskritura Santuaren inguruko klasiak emoten dittu.



a u t u a n

JUBILAUEN TABERNIA

Untzagako jubilau etxeko taberniaren arduria hartu nahi dabenak bete-biharreko baldintzak eskatzeko aukeria izango dau hillaren 29ra arte jubilau etxeko buleguan, martitzenetik barixakura, 12.30xetatik 13.30xetara (25ian izan ezik).

MAHAL-INGURUA

Ezker Batua Berdeak-ek osasunaren gaineko mahai-ingurua antolatu dau hillaren 19rako (Portalean, 19.00etan). Hizlarixak Agustin Cutierrez (Euskadiko Mediku-sindikaturua), Sorkunde Nazabal (Enfermerixan diplomaua) eta Luis M^a Zaldunbide (Bilboko Santa Marina ospitaleko neurologua) izango dira eta moderadoria Mediku-sindikaturako ejekutibako kidia dan Juan Sánchez Vallejo psikiatra.

DELOREAN AUTOMOBILLA

DeLorean auto historikua El Corte Inglés-ian ikusgai dago eta gaur 18.00etatik 19.00etara erretratua etartzeko aukeria egongo da. Lehiaketia be antolatu dabe, "Etorkizunian zein esperientzia bizitzia gustauko litxakizu?" galderiari erantzun eta aldameneko panelian lagatzen dabenen artian orijinalena saritzeko (uztaillaren 13ra arte).



Mosaikua, Aire Garbiak Bira Nazan kanpaiñaren barruan

ZERO ZABOR TALDIAREN AIRE GARBIAK BIRA NAZAN KANPAIÑAREN BARRUAN, bestiak beste "Errausketari atek ixten" dokumentala ikusteko aukeria egon da egunotan eta atzo herritar mordua alkartu zan Untzagan argazki erraldoia etartzeko. Bestalde, domekan Donostiako Sagues auzuan mosaiko erraldoia osatuko da eta bertara juateko autobusa antolatu dabe (Ego Gaiñetik 09.30xetan urtengo da). Aurretik izena emoteko zerozaboreibar@gmail.com helbidera idatzi edo 619196034 telefonora deittu bihar da.



Planifikaziñua falta dala diño EAJk

EIBARREN DAGUAZEN PREMIÑERI EGOKI ERANTZUN AHAL IZATEKO

"planifikaziño estrategikua falta dala" pentsatzen dabe EAJ alderdikuak, aurreko barixakuan Eva Juezek urtiaren gaineko balanzia eskindutako prentsaurrekuan esandakuaren arabera, eta gobernu-taldian daguezen PSE eta PP alderdixeri "herrixan daguezen premiñen inguruko irakorketa egokixa" egitteko eskatu nahi detse,

"holan herrixaren etorkizuna modu zorrotzian eta adostasunian planifikau ahal izateko".



Esperientzia Eskolakuak oporretan honezkero

DEBABARRENAKO ESPERIENTZIA ESKOLAKUAK OPORRAK HARTU DITTUE: aurreko barixakuan agurtu eben ikasturtia 8. promozioño ikasliak eta uda pasau arte ondo irabazittako atsedena hartuko dabe. Bixen bittartian, laster hurrengo ikasturterako matrikulaziñua zabalduko dabe.

Eguaztenean aurkeztu zituzten Markeskua jauregian Udako Euskal Unibertsitateak Eibarren eskaintzeko antolatutako udako ikastaroak. Sanjuanak eta gero, ekainaren 26tik 29ra eta uztailaren 9tik 11ra emango dituzte ikastaroak, 22 guztira. Ikastaroen arduraduna den Irati Iciarrek eman digu horien berri.

IRATI ICIAR (UEUko udako ikastaroen arduraduna):

“Dirua ez dadila izan ikastaroetan parte ez hartzeko arrazoia”

- 40 urte, 40 ikastaro. Nolakoa izan da horiek antolatzeko aurrelana?

Aurtengo egoera ekonomikoa larriaren aurrean, udako ikastaroak UEUren lanari errekonozimendua adierazteko erabiltzea erabaki genuen, azken batean gure erakusleiko garrantzitsuena direlako. Gure bazkideei eta dei egin genien eta urtarrilerako 112 proposamen jaso genituen. Batzorde akademikoak horiek guztiak aztertu eta 40 hautatzea zaila egin zitzaigun. Krisi garaian formakuntza oso garrantzitsua da, baina horrek ere eragina izan dezake matrikula kopuruan,

22 IKASTARO MARKESKUAN

Udako 40 ikastaroetatik erdia baino gehiago, 22 hain zuzen ere Eibarren emango dituzte. Urteroko moduan, Udalak matrikularen %100 ordainduko die Eibarren errol-datatukoei, gutxienez baldintzak bete eta Pegoran eskaera-orria aurkeztuz gero. Matrikulazioa zabalik dago eta www.ueu.org helbidean eman daiteke izena. Ikastaro guztien inguruko informazio zehatza ere bertan aurkituko duzue.

hortik auzolanaren, beken eta diru-laguntzen garrantzia, dirua behintzat izen-emateko oztipoa izan ez dadin.

- Markeskuan udako ikastaroak eskainiko dituzuen 7. urtea izango da aurtengoa. Egoitzen artean berriena izanik, Markeskua udako ikastaroetarako egoitza modura finkatuta dagoela esan daiteke?

Bai, duda barik bere lekua egin du. Lehenengo udako ikastaroak eskaini genituenean esperimento modura egin genuen. Bestalde, urte osoan hemen dagoen eskaintzarekin koherentea ere bazen udako ikastaroak bertan eskaintzea. Eibar oso ondo kokatuta dago eta hasieratik hemen eskainitako ikastaroak oso arrakastatsuek izan dira, ikastaroak pisua hartzen joan dira eta gaur egun aste bitan eskaintzen ditugu. Bestalde, guretzat antolatzaile modura oso eroso egiten zaigu Markeskua, azken batean etxean gaudelako.

- Eskainiko dituzuen ikastaroen artean bereziki azpimarratuko zenukeen baten bat badago?

Oso zaila egiten zait aukeratzea, ez naiz objektiboa. Ama bati seme-alaben artean

bat aukeratzea eskatzea modukoa da niretzat, ikastaro guztiak arrazoi batengatik edo beste batengatik bereziak dira niretzat: batzuk lantzen duten gaiengatik, beste batzuk metodologiarengatik, beste batzuk hizlariarengatik...

- Aurten, urteurrena dela eta, ekintza bereziak ere abiarazi dituzue, ezta?

Bai, batetik UEU Bonoak ipini ditugu salgai 30 eurotan, baina UEUk 3 euro oparitzen ditu eta, beraz, 33 euroko balio erreala daukate bonoek, urte amaiera bitartean UEUren zerbitzuetan erabili ahal izateko. Beraz, ikastaroetarako ez ezik, liburuak erosteko edo bestelakoak ordaintzeko erabil daitezke bonoak. Gainera, opariak egiteko balio dute. Bonoak erosteko komunikazioa@ueu.org helbidera idatzi daiteke edota 943821426 telefono zenbakira deitu. Eta bestetik, Bizipozen Bloga (www.unibertsitatea.net/blogak/UEU40) sortu dugu, 40 urte hauetan ikastaroekin lotutako pasarte eta bestelakoak batzeko asmoz, bisita-liburu baten antzera. Hori dela eta, udako ikastaroetan parte hartu duten guztiei dei egiten diegu, beraien esperientziak bidaltzeko.



Zatoz Sanjuanetan!




EIBARKO BATZOKIA
Ego Gain, 1 - behe

Razioak, Entsaladak
eta Plater desberdinak
BARRAN

Tfnoa. 943 25 72 80
www.baibatxokia.com

Zapatuan zabaldu zittuen Ipuruako kanpoko igerilekuak. Iaz instalaziñuak mejoartzeko egindako biharrerri beste batzuk gehitu ditsez aurten eta, holan, bestiak beste, uraren temperatura 20-21°C-raiño igotzia lortu dabe. Uda osuan, iraillaren 9ra arte egunero egongo dira zabalik, 10.30xetatik 20.00etara.

Kanpoko igerilekura juateko ohitturia dakazu?



ELENA ARREGI
68 urte
etxeakoandria

Neuk ez, ez naiz egon, baiña loibia sarrittan juaten da eta oso gustora ibiltzen da bertan. Aukerari, pixkat txikixak dirala begitnantzen jako.



XABIER ADOT
16 urte
ikaslia

Bai, kanpoko igerilekura juateko ohitturia badakat, baiña aukeria eukiz gero askoz be gehixago gustatzen jata hondartzara juatia, igerilekuak baiño hobia dala pentsatzen dot.

JOSEBA ARRILLAGA
31 urte
pinttoria

Ez naiz sekula hamengo igerilekuan egon, baiña edozelan be askoz gehixago gustatzen jata hondartza igerilekua baiño, naturalagua topatzen dot eta, gaiñera, kirolak eta bestelakuak egittekou aukera gehixago eskintzen dittu.



TERESA BEATRIZ KIMU
39 urte
etxeakoandria

Ba egixa esateko ez naiz sekula egon, ez dakitt zelakuak dira. Edozelan be, igerilekua edo hondartzaren artian aukeratu biharko baneu, nahixago dot igerilekua hondartza baiño, garbixagua-eta dala pentsatzen dot.



Arragueta Hartz-Klinika



Esku onenetan!!!

NATALIA ARIAS: Odontologia orokorrean
ANDONI PEÑARANDA: Zirujia
VIRGINIA GARCÍA-PASCUAL: Ortodontzia
DAMON Sistemarekin (bisita eta ateratze gutxiagorekin)

**INPLANTEAK, PROTESIAK,
ENDODONTZIA, ORTODONTZIA**
Norberaren hortzekin jarraitzeko **ODONTOLOGIA**

Arragueta, 2 bis B - behea C

Tel. 943 53 02 45

TEEN-
AJEA



Jokin Bergara Ignazio Zuloaga Institututoko ikasleak Gipuzkoako txapela jantzi zuen Andoaingo Bastero aretoan jokaturako Eskolarteko bertso txapelketan. Bihar Agurainen Euskal Herrikoa izango da jokoan eta han izango da Eibarko ordezkaria, ezustekoa emateko prest.

JOKIN BERGARA (BERTSOLARIA):

“Bertsotan egitea hizkuntzarekin jolasteko modua da, ez besterik”

- Gipuzkoako txapelduna 15 urtetik 18ra artekoan. Ezustea izan da zuretzat?

Gutziz. Zalantzak izan nituen aurkezteko ere, baina azkenean animatu nintzen, galtzeko ezer ez nuela pentsatuz.

- Zelan joan zen Andoaingoa? Zaila izan zen irabaztea?

14 urtetik beherakoenekin hasi zen ekitaldia eta gero sartu ginen gu jokoan. Gu geunden argipean eta publikoa ilunean zegoen, ez hain gertu gure mesederako. Oinak emanda jardun genuen, gero ofiziokoa; eta esango nuke txapeldunordearekin jardun nuen azken horretan lortu nuela txapela.

- Aguraingorako zein asmorekin zoaz?

Berdin: ez dut ezer galtzeko eta ikastera joango naiz, esperientzia hartzera. Gustatuko litzaidake egun polita egokitzea eta jendea ezagutzearekin nahikoa dut.

- Zelako lana egin beharko duzue final horretan?

Zortziko nagusian bina bertso bota beharko ditugu eta zortziko txikian hiruna. Hamar lagunetik seira pasatuko gara

galbahea egin ondoren eta gero kartzelako gaiarekin amaituko dugu.

- Zenbat urte daramatzazu bertsotan egiten?

Orain dela hiru urte Hankamotxak Eibarko bertso-taldearekin hasi nintzen, lehenengo idatzizko bertsoekin jardunez. Bertsotan egitea hizkuntzarekin jolastea modukoa da eta hori dut benetan gustoko.

- Zein bertso-mota gustatzen zaizu gehien? Zein gutxien?

Eroso sentitzen naiz orokorrean. Estuen, akaso, puntuari erantzuterakoan, hor oinak emanda datozelako.

- Bestela, plazara irten zara?

Behin bakarrik, gaztetxean, San Andres jaietan.

- Bertsolaririk gustokoena?

Guztiok buruan ditugun horiek: Maialen, Andoni, Amets... Eurak dira eredu.

- Bertsolari zaharrik ez?

Bertsoa asko aldatu da eta sasoi batekoak ez ditut hain gertu ikusten: Basarrik Jainkari kantatzen zion bitartean, Maialenek langabezia izango du jorrazteko. Azken hauekin identifikatuago sentitzen naiz.

17

Mosaiko erraldoia

Euskal Jaialdiaren edizio berria domeka arratsaldean

SAN JUAN EGITARAUAREN BARRUAN OHIKOA BIHURTU DEN EUSKAL JAIAREN EDIZIO BERRIA jokatu da etzi, arratsaldeko 19.30etan hasita. Hiru aizkolarik (Jose Ramon Iruretagoiena "Izeta II.a", Francisco Javier Valenciano "Zelailuze" eta Carlos Ruiz de Aretxabaleta) eta sei aizkolarik (Ernesto Ezpeleta "Bihurri", Jose Felix Zubizarreta -Agiteren ordeze-, Jesus Gisasola "Zelai II.a", Hodei Ezpeleta, Ioritz Gisasola eta Alex Txikon) osatuko dute jaialdia; hori bai, aipatutakoek egindako lanarekin batera, Iparraldeko jokoak ere izango dira.



San Juan pelota txapelketa

MARTITZENEAN JOKATUKO DIRA TORNEOAREN BIGARREN FINALERDIAK, Astelenan horiek ere: 19.00etan hasita, lau eta erdiaren barruan Klub Deportiboko Unamunzagak eta Elgoibarko Txurrukak neurtuko dituzte indarrak eta, jarraian, binaka jardungo dute Lizarralde (Elgoibar) eta Oionek (Aretxabaleta) osatutako bikoteak eta Arribillaga (Elgoibar) eta Lanz-ek (Eibar) osatutakoak. Martitzenean jokatutako lehen finalerdietan, Bengoetxeak 22-16 irabazi zion Egañari eta Larreategi-Zubizarreta nagusi izan zen binaka.



Garitano, Eibar KEko entrenatzailea

AZKEN DENBORALDIAN BIGARREN TALDEAREN ENTRENATZAILEA izan den Gaizka Garitanok hartuko du Manixen tokia hurrengo denboraldirako. Esperientzia handiagoa duen Imanol Ildiakes zen beste hautagaia, baina Eibar KEko zuzendaritzak Garitanoren alde egin du, "etxea barrutik ezagutzen duelako". Bestalde, Zigor atezainaren baja betetzeko, taldeak Altamira Gernikako atezaina fitxatu du eta, horrez gain, hurrengo denboraldian jardungo duen taldea osatzera-

ko orduan, aurtentitularrak izan direnen %80arekin kontaktatu zuten zuzendaritzak.

Infantilak txapeldun

Igor Arriagak eta Jon Agirre-azaldegik prestatzen duten taldeak Gipuzkoako txapela jantzi zuen Ermuan jokatu zen eskualdeen arteko azken fasean. Ez da izan talde hori Eibar KEko txapeldun bakarra, nesken jubenil mailakoak ere liga irabazi baitzuen, 2. mailako neskek mailari eusten zioten bitartean.

Radio Eibar
 C A D E N A
SER
 104.0 FM

Izadi
LORADENDA
 - Lora eta landare natural eta lehorrak
 - Ezkontzetarako lorak
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

EGOITZA NAGUSIA
 Bilbarrizte 20 - beheko, eskume

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba
Tanatorio eta Erusketako labor
 Egoiberran (ligna poligonar)
 Artikular - metal eta osagun erretzibitak
 Kizket - Estekak - Urtutarako estekak
 Euskal Herri osoko ospitaleen hartzaileak
 Nazio eta Nazioarteko taldeak

Mugica Ehorzketa
 (ENTRENATZAILEA)

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelera,
gaztelertatik euskarara,
eta ingelestetik euskarara.

ZERBITZUA
 elkarte@etakitto.com



Iñaki Mateos (erdian) Gernikan jokaturako Euskadiko Txapelketan.

Bi domina Eibarrera Euskadiko fitness txapelketan

GERNIKAN JOKATUTAKO KIROL MODALITATE HORRETAKO TXAPELKETAN, Iñaki Mateosek ezin izan zuen iaz lortutako lehenengo postua berretsi eta 3.arekin konformatu behar izan zuen, bigarrena bereganatzeko lana egin bazuen ere. Aurretik, dena dela, eibartarrak Sondikako Opena irabazita zuen, "Bizkaiko txapelketa" deitu dezakeguna. Mateosek, dena dela, ez du lorpena berea bakarrik izango balitz moduan hartu eta "Jon Urkiza botilleroaren eta Iker Torre prestatzailearen" lana ere errekonozitu nahi du, "familiak agoantatu behar duen guztia-ekin" batera. 40 urteren bueltan dabilen kirolariak bera bai-

no askoz gazteago direnekin neurtu zituen indarrak eta harro dago egindako lanarekin "batez ere, ezer hartu barik garbi jokatzen dudalako". Brontzezko bigarren domina **Jon Labakaren** eskuetara joan zen, azken hau body-line modalitatean. Erregional mailako Eibartarrak-en jokatzen duen foballariak azken orduko pres-taketa egin zuen eta, juxtu hel-du arren, "zenbateko posibiliteak dituen" erakutsi zuen Mateosen esanetan. Body-linean "goiko alde begiratzen da ba-karrik, hankak ez" eta ez du fit-ness-ak eskatzen duen exigentzia maila; hala ere, bikain jar-dun du Labakak bere estreinal-dian.

Muestra-txakurren erakustaldia bihar Arrateko Olabe zelaian



DIANA EHIZA ETA ARRAN-TZA ELKARTEAK ANTOLA-TUTA, Laurona saria jokatu-ko da bihar goizean Arrateko Olabe zelaian, goizeko 08.15etan hasita. Txakur kontinentalak eta britainiarrak ikusteko aukera izango da, galeperraren ehizan (hori bai, hil barik). Guztira 24 izen-emate onartuko dira eta lehiaketako txakur irabazlea-ren jabeak LZ eskopeta jaso-ko du, "sariak izango badira ere maila guztietakoendako".

Gaur dute hitzordua areto-foballean jokatu nahi dutenek

ARETO-FOBALLEAN JOKA-TU NAHI DUTEN JUBENIL, KADETE ETA INFANTIL maile-tako guztiek (hau da, 1994tik aurrera jaiotakoek) Unibertsitate Laboralean dute gaur hitzordua, 17.00etatik 19.00etara, probak egin eta hurrengo denboraldian gure herriko taldearekin jokatze-ko; hori bai, kirola egiteko arro-parekin aurkeztu behar dira.

Bestalde, azken denboraldian Gipuzkoako 1. mailan jardun izan duen Concepto Createch-ek mailaz igotzea lortu du, bere aurretik sailkatutako taldeek ekonomikoki maila berriari aurre egiteko gai ez direlako. Aipatu-tako taldea Debabarrenako bi-garren taldea da, 2. B maila na-zionalean diharduen Concepto Egile talde nagusiaren atzetik.




Laríz nagusi Galdaramiñon

IÑIGO LARIZ ELGOIBARKO ATLETAK AURREA HARTU ZIEN JOSEBA PLAZA markinarrari eta Mendaroko Ion Larrañagari.

Nesketan, bestalde, Ait-ziber Urkiola Eibar Klub Deportibokoa izan zen azkarrena, Maider Korta azpeitiarraren eta Pilar Arriola elgoi-bartarraren aurretik. Guztira 53 parte-har-tzaile izan zituen Urki-ko jaien barruan anto-latzen den mendi-las-terketak.




Aitor González Euskadiko txapeldun 23 urtetik azpikoenetan



DEBABARRENA TALDEKO TXIRRINDULARIAK URRE-TXUN IRABAZI ZUEN TXA-PELA, Santa Barbara gainean. Arkaitz Durán profesional-ohia nagusitu zen proban, horrela elite mailako txapela jantziz, eta Eibarko taldeko ordezkaria 3. postuan sartu zen, Naturgaseko Jon Larrinaga bere aurkari na-gusienari 17 segundo kenduz. Parte hartu duen proba guztie-tan eman du maila Aitorrek.

Deporreko hiru atleta Euskadiko selekzioarekin

ZARAGOZAKO PISTETAN JOKATUTAKO ESPAINIAKO KOMUNITATEEN ARTEKO atletismo txapelketetan, Ainhoa Aspiazuk disko jaurtiketan jardun zuen kadeteetan eta Tomas Vouillozek jauzi hirukoitzean eta Ibrahim El Moussaouik jabalina jaurtiketan, azken biek jubeniletan. Aspiazu 6.a izan zen, Vouilloz 10.a eta El Moussaoui 12.a, puntu baliagarriak eskuratzuz Euskadiko selekzioarentzat.



Hamar taldek jardun zuten Futbol Festan



AZKEN ASTEBURUAN UNTZAGAN JOKATUTAKO II. FUTBOL FESTAN hamar taldek hartu zuten parte ligaxkan eta horren ondorengo finaletan. Eibarko eta Ermuko taldeekin batera, Bilbotik etorritako gineatarrekin osatutako beste batek ere hartu zuen parte.

Hamalau eibartar Hiru Handietan

AURREKO ASTEBURUAN AIZKORRI, ANBOTO ETA GORBEIA LOTUZ JOKATUTAKO Hiru Handietan gure herriko hamalau kirolarik hartu zuten parte. Miren Gallastegi izan zen emakume bakarra (25. postuan amaitu zuen, 20h48'27" erabiliz proba amaitzeko) eta Juan Ramon Rodríguez izan zen ordezkari onena gizonetakoetan,

47. postuan (14h.56'34"). Igor Azurmendi (89.a), Luis M^a Ugarte (133), Iñaki Arosa (134), Aitor Lameiras (270), Jose M^a Gutiérrez (397), Asier Garde (429), Andres Luengo (435), Juan Carlos González (513), Eduardo Uribe (603), Aitor Molano (610), Juan Urigoen (704) eta Fernando Arregi izan ziren proba amaitu zuten beste eibartarrak.

Boxeoa eta sanda gaur gauean Astelenan

SENDO JARRAITZEN DU SANJUANETAKO PROGRAMAZIOAN Astelena frontoian jokoan izaten den boxeoa eta sanda profesionaleko jardunaldiak. Oraingoan Erik Lópezek hartuko du parte welter pisuko borrokan, 3x3 modalitatean, eta sandan gure herriko Ttatt gimnasioko partaideak Beasaingo Loreakoekin neurtuko dituzte indarrak. Sarrerek 15 euroko prezioa izango dute aulkietan esertzeko eta 12koa gradetan.

Tiro eta arku lehiaketak

TORNEO HAUEK ERE OHIKOAK DIRA SANJUAN JAIETAN. Bihar jokatuko dira biak: tiro txapelketa goizez eta arkuarena arratsaldean. Dinbidanbak antolatzen duen haizezko armekin egiten den txapelketa 21. edizioa beteko du aurten eta Hezkuntza Esparruan jokatu da, 11.00etan. Urko Arkularien Klubaren eskutik Txaltxa-Zelaiko kioskoan jokatu dena 18.00etan hasiko da.

Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Sellatutako Funeuskadi Eibar | Bulegora: Euzkoaren, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

Funeuskadi
El primer paso hacia un buen funeral

• Eibar • Balmuccia • Billaño • Barrovaldo • Leiza • Gertzo • Gertzo • Portugalete • Santurtzi • Balañakoa • Sodupe • Espinosa de los Monteros

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

1 Kardiologia	10 Barne Medikuntza
2 Zirurgia	11 Radiologia
3 Dermatologia	12 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	13 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	14 Koloproktologia
6 Ortodontzia	15 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	17 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	

GREMIOEN GIDA

NEW NEWS

ANTENAK

BALATZ S.L.

Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC
SERVICIOS DE ELECTRICIDAD
REPARACION DE CABLES
INSTALACION DE CABLES
REPARACION DE CABLES
REPARACION DE CABLES
REPARACION DE CABLES

HODI-LIBRATZEAK

ATAX
— Hodi-libratzeak
— Saneamenduen garbitzea
— presio handiko makinariarekin
— Ur ateratzea ufaletan ondoren
www.desatax.com
LARRALDIETARAKO (24 ordutan): 673 304 222

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaiak eta
proiektu elektrikoak



Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

IGELTSEROAK

IGELTSERITZA
**CAMILO
ALVAREZ** OROKORREAN
— Barne erreformak
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
— Gremioen koordinaketa
Jardiñeta, 25 - behea
Etxeko tfnoa. 943-207678
Mobila. 620 060 104

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota
guztietako lanak

Ateak - Tarimak
Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

GARBIKETAK

Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superfizie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171



Barrera, 21 - 1. F

irazabal
ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA
www.irazabal.net
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ulmar



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta
mantenimendua

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



ITURGINTZA



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...
HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

PINTURAK



Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etzerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

Pintura
Goi mailako
dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia
ERREKATXU, 3^{an}
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
c.acha@euskaltel.net
eta faxa: 943 20 39 03



- Nexa
- Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELE...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com



pintura eta estaldura
mota guztiak

BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97

SARRILAGINTZA



Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak
askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99



Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Askok ikusiko zenduezen bere argazkixak: ETBko eguraldixaren esparruan tartia izan dabe bere paisajiak, kirol arlokuak be ez dira gitxi izan (azken aldixan rugbixa jarraitzen dau batez be). Zailla egitten jako kamara barik etxetik urtetzia eta holan deskonektatzen dau egunerokotik. **Ramon Beitia Olabarri** be ezaguna egingo jatzue askori; gatxa, bestalde, aurpegixa ipintzia. Eta bera holaxe aurkitzen da gustora: “Nire aurpegixak ez detsa ezebez esan bihar jendiari; nire irudixak esan bihar detsa. Gustau ezkeru, bikaiñ”.

Txomin anai nagusixak lagatako kamara batekin hasi eban irudixen inguruko ibillaldi hau Ramon Beitia. Gaur egun, asteburuero ehundaka argazki egitten dittu eta materixala be “dexeñte” me-jorau dau. “Hobby-xa da niretzat egitten dotena; ez naiz hortik bizi”, diño. Baiña prest dago, edozein momentutan, lagun edo ezagun baten seme-alaben dantzaldixaren irudixak etaratzeko. Ezkontzetan eta halakuetan gitxiago jardun dau: “Asko arriskatzen dozu. Bai etara ditudala egun berezi horren aurretik, edo gero... Baiña egunian bertan... bestela be, digita-

Ramon Beitia, Felix Morquecho argazkilarixak egindako fotografixan.



Bera konturau barik, benetako artistia eginda

lekin-eta, nahiko argazkilaria izaten da ospakizunetan. Gaiñera, iñoiz be ez dot kobratu argazkixengaittik”.

Lehelengo kamara digitala zelan lortu eban gogoratzen dau: “Radio Euskadin izan zan, poesia konkurso baten”. Modalidade artistiko bat baiño gehixago konpaginatzen dau-eta Beitia eta ondo daki argazkixak eta poesiak alkarlotzen: “Fotografixak argazki-oin modokua bihar izaten dabe eta paisajiak eta halakuek janzteko poesiak ondo etortzen dira”. Etengabeko eboluziñua bizi izan dau bere zaletasunarekin: “Gaur egun gorputz pare bat eta hainbat objetibuekin

egitten dot lan. Baiña ez da zaletasun garestixa: kamara zahar batekin moldatu zeinke. Faltan botatzen dotena? Denporia gehixenbat: biharra egittia be tokatzen da eta famelixari be zor detsazu merezi daben tartia”.

Jubilau batenak ez dira ba?


Telebisiñora bialdutako argazkixekin jendiak bere irudixak jubilauek etaratakuakin nahastu izan dittu askotan. Eguna argitzera doiala etaratakuak goiz jaikitzia eskatzen detsa bateri eta, “horregaittik, asko harritu da nire argazkixak zirala jakitxerakuan. Errelebuan jarduten dot eta, goiz jaikitta be, oheratu

be halan egitten dot, sasoiz ixa beti”. Udan oindiokan goizago jaikitzen da, Arratera igo edo kostaldera juateko. Fotografixak botatzetik kanpo, etxian be jarduten dau, ordenadore aurrian: “Argazkixak ordenatu bihar dozuz noizbehinka. Oin be pare bat biaje dittu paperera pasau barik. Laboratorixu lan gitxi egitten dot: gaur egun zailla da-eta likiduak eta papela bera aurkitzia. Dana dala, oin dala urte batzuk ikastarua egin neban Deporrekuekin”.

Interneteko konkursuetan hartzen dau parte Ramonek. Holan irabazi eban kirol arloko argazkilaritza sari bat, Marca kirol egun-



Olatuak Zumaian, iazko tenporalian etaratakuak.



Aritz Aranbururen surf- olatu honekin irabazi eban Zarautzen.

karikua. Baita DV-ko beste bat, mobimendua adierazten zeban beste batekin. *"Surf-ak eta paisajiak emon deste saririk"* diño berak. Muy interesante rebistiak be kaleratu dittu berak *"naturari lapurtutako"* irudixak. Bestelako lehiaketetara-eta ez da larregi animatu argazkixak bialtzen: *"Ondo ez ulertzian zer dan baloratzen dabena, errezelo pixka bat be sortsen deitsu-eta"*.

Aittatu dogun moduan, beste arte batzuk be lantzen dittu Eibarko fotografuak: *"Komentari-xua egin biharrian, poesia batekin bialdu dittut fotografixak. Hori bai, ni ez naiz poeta; baiña halako lehiaketetan be lortu izan dot emaitzarik"*. Dibujua gustoko dabena galdetuta, baietz diñosku: *"Urtebete emon neban eskolan, baiña ez naiz larregi zentrau horretan"*. Esposiziñuak egitteko tarterik ez dau topau: *"Bestienak ez dittut larregi jarraitu eta neriak antolatzeko tarterik ez dot hartu oindiokan"*.

Aurretik prestatzia hobe

Aurrez pentsatutako argazkixak gero lantzeko aukera gehixago emoten dabela uste dau: *"Bida errazten deitsu horrek, noizbehinka bapatekuak sorpresa emoteko aukeria baztertu barik. Paisaje batek ez dau ezer irauten eta horren billa jo bihar dozu"*. Gogoratzen dau Elgetakua zala Eguraldira bialdutako



Birak emondako dantza-saiuaren irudixa.

lehelengo argazkixa: *"Gerokuak kalidade gehixago izan dabe. Zelakuak egiñ? Onak, txarrak eta oso txarrak etara dittut; horregaittik ahalegintzen naiz gitxi bialtzen"*. Aldatzia jarraitzen dau helburu izaten, *"beti be inguruak abstraidu eta bisorearen*

atzetik begiratuz". Hain bere jardunian sartuta, *"kirol zelaixan sartu naizela behin baiño gehixagotan, konturatu barik"*. Onartzen dau azkar sakatuta be, *"zailla dala irudixan errealidadia geldiaraztia"*.

"Olatuak eta tenporalak". De-


ban eta Zumaian etaratako argazkixekin dago pozik; eta baita Eibarko egunsenti eta lañuekin, *"askori Eibarren etaratako argazkixak dirala siñistia kostatzen bajakue be. Eibarren goiz marabillosuak ikusi leikez"*.

Hamendik kanpo, Alpietan eta Parisen lortutako irudixekin gozatu du gehixen: *"Baita Mejjikon izan nintzanian, baiña han argi gehixegi dago eta batzuetan hankia sartu neban"*. Argazki onak etaratzia ez dau uste lan erraza danik: *"Halanda be, fotografuak gero eta lan gitxiago daka. Hori bai, gero eta gehixago dagoz"*. Eibarren bertan onartzen dau asko dagozela, *"eta onak, Klub Deportibuaren inguruan mobitzen direnetik hasitta. Palacios eta halakuen sarixak hori erakusten dabe"*.

Fotografiatutakuak lagun


Fotografixak etaraterakuan arazorik izan dagan galdetuta, esker oneko jendierekin aurkittu dala onartzen desku: *"Ni be ez naiz edozein modutan sartzen, gitxiñaka baiño. Ez nabil argazkixak lapurtzen. Baiña jendiak ondo posatzen dau, naturaltasunez. Ez naute ezagutzen, baiña bardin detsa. Izan da basarri-xaren fotografixia emon eta pastelak bialdu destanak"*.

Ramon Beitiak bestiok ikusten ez doguna *"plasmazia besterik"* ez dau gura. Kamara barik ez da etxetik urtengo, badaezpada: *"Erosua da. Beti egon leike zeozer, baiña ez noia notziaren atzetik. Etaratzen dotena jendiari gustatziarekin ni konforme; ez dot besterik bihar"*. Irla batera be argi dago kamaria eruango leukela: *"Entxufe barik txarto baiña"*. Begiratzia gustatzen jako Beitiari eta, gitxinaka, ixa bera konturatu barik, *"ikusten ikasi"* dau. Bestiok ikusten ez duguna gure esku ipintzen dau, horretarako argazkixak lantzen badiitu be: *"Gehixenak tratatzen dittut, gehixago edo gitxiago"*. Protagonista baiño, *"irudi-sortzaillia"* dogu Ramon.



Eibar eguna argitzen doian bittartian. Argazki txixixan, egunsentia hodeiekin Arratetik etarata.

Sanjuanetarako giroa berotzen joateko, bihar jaietako kontzertu nagusia eskaintzera etorriko zaigu Amparo Sánchez, urteetan Amparanoia taldearen ahotsa eta bihotza izandakoa. Amparanoiarekin zazpi disko grabatu eta 1.000 kontzertutik gora eskaini ondoren, 2008an bakarlari modura jarduteko



erabakia hartu zuen eta bihar 23.00etatik aurrera Untzagan bere lan berria zuzenean entzuteko aukera izango dugu.



AMPARO SÁNCHEZ, abeslaria:

"Arizonan hasi eta, Mexikotik igarota, Kubaraino joango gara"

- Luzaroan "Amparanoia" moduan ezagutu zaitugu, baina bihar zerbait berriarekin zatoz eta, gainera, Amparo Sánchez moduan. Nolako da "Tucson-Habana" zure lan berria? Amparanoiarekin zerikusirik badu?

Musikari dagokionez oso proposamen ezberdina da, baina oso proposamen interesgarria, izenak aditzera ematen duen moduan mugako eta Karibeko aireak elkarrekin nahasten dituelako. Arizonako basamortuan hasi eta, Mexikotik igarota, Kubako irlaraino doan bidaia musikala da.

- Zergatik horrelako aldaketa zure musika ibilbidean?

Garatzen eta hazten jarraitu nahi nuen, ez nuen nere burua bizitza osoan abesti berberak kantatzen ikusten... Orain emakume helduagoa naizela sentitzen dut eta nire


ahotsari eta neure buruari Amparanoiarekin jai-giroko estilotik aldentzen den zerbait erakutsi nahi diet, nire jarraitzaileei omenaldi modukoa eginda sasoi hartako abestiren bat edo beste eskaintzen dizkiedan arren.

- Zergatik Kuba?

Kubak nire ibilbide osoan izan duen eraginarengatik. Egrem estudioetan nire Calexico maiteekin batera grabatzea bete zaidan ametsa zen eta, gainera, Omara Portuondoren kolaborazioa izan genuen, beraz, luxu bikoitza!

- Nolako izango da asteburuan Eibarren eskainiko duzun kontzertua?

Tronpeta boskotea, pianoa, kontrabajoa, bateria eta gitarrak joango gara. Tucson-Habana albuma izango da ardatz nagusia, baina abesti berri batzuk eta aspaldiko beste batzuk ere joko ditugu. Zain izango gaituzue!




Agur Urkiko jaiak

Aurreko asteburuan ospatu zituzten Urki auzoko jaiak. Barixuan hasi eta domekara bitartean, egitarau zabalak jasotako jarduera guztiak aurrera eraman zituzten, tarteka-marteka euria bota bazuen ere. Auzoko nagusiei omenaldia egin zieten, umeetat ikuskizun eta jokoak antolatu zituzten, kirol probak jokatu, Brasilgo doinuen erritmora dantzatu, otarrainskak eta cava dastatu, paella eta bestelako lehiaketetan nor baino nor jardun... den-dena jai giro paregabearen.

Azkaiter Pelox zuzenean Karrikan

Karrika tabernak gaur gaueko kontzertua antolatu du: 22.30etatik aurrera Azkaiter Pelox zuzenean entzuteko aukera izango da, kontzertu akustikoan. Unai Azkarate (Bergara, 1980) 1996an hasi zen gitarrak jotzen eta lehenengo pausua 5p4 eta Fly Shit taldeekin batera eman zituen, punk-rock eta hardcore estiloari jarraituta. 2004an Fly Shit taldea laga eta Azkaiter Pelox moduan gitarra akustikoarekin bakarlari gisara kontzertuak emateari ekin eta Mahaster River proiektu akustiko berria sortu zuen 2008an beste hainbatekin batera.




Beorlegiren koadroa opari

Atzo Maria Luisa Ereña, Fernando Beorlegiren alargunak Udal Liburutegiari koadroa eman zion dohaintzan, hain zuzen ere Beorlegi Juan San Martini egindako erretratua. Oparia egiteko ekitaldian Juan San Martinen familiakoek ere hartu zuten parte.

Sostoaren sanjuanetako kontzertua

DATORREN ASTEKO BARI-XAKUAN, HILAREN 22-AN ESKAINIKO DU SOSTOA ABESBATZAK sanjuanetako kontzertua, Coliseoan 20.30-etatik aurrera. Ordubete eta erdi inguruko iraupena izango duen emanaldiari "Pablo Sorozabal, un músico en la encrucijada" izenburua ipini diote eta kontzertuan bere figura eta lana izango dira ardatz nagusia. Abestiekin batera, musikagile donostiarraren bizitzaren pasarterik nagusienei errepasoa emango diete eta, berak idatzitako abestiez gain, Aita Donostiak, Fernando Remachak, Aita Hilario Olazaránek eta Francis-



Sostoak urtero eskaintzen duen kontzertuak zaletu asko batzen ditu. / LEIRE ITURBE

co Escudero idatzitako kantabana sartuko dute egitarauan. Kontzertuan, bestalde, Sostoa-ri laguntzen Isabel Laspiur (pia-

noan), Andrea Berbois (biolinarekin), Sergio Morenza (gitarra-ekin) eta Usartza txistulari taldekoek jardungo dute.




130 ikasle gaur Dantzari Egunean

GAUR 19.30-ETAN HASIKO DA UNTZAGAN DANTZARI EGUNA, Kezka dantza eskolako ikasleentzat ikasturte amaierako emanaldia izango dena. Kezkako 30 dantzari eta musikariek batera, dantza eskolako 130 ikasleek ikasturtean zehar landu dituzten hainbat dantza eskainiko dituzte. Ikasleek Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako dantza tradizionalak eskainiko dituzte eta Kezka dantza taldeko dantzariak, berriz, Nafarroako bi, "Otsagabiako dantzak" eta "Iribasko ingurutxoak".

Iñaki Arizmendi Topalekuan

DOMEKARA ARTE ARRATE KULTUR ELKARTEAREN ERAKUSKETA ARETOAN Iñaki Arizmendiren "Arizmendi se regodea" izenburuko margo erakusketa izango da ikusgai, ohiko ordutegian: gaur 19.00etatik 21.00etara eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



laburrak

BERTSO IKASTAROA

Datorren egunean, hilaren 21ean, Portaleko ikastaro gelan Arkaitz Goikoetxea oiartzuarrak ikastaroa eskainiko du 19.00etatik aurrera, bertso eskoletan beharrean nola jardun behar den azaltzeko.

TAS TAS-EK 30 URTE

Hilaren 22an 30 urte beteko ditu Tas Tas Kafe Antzokiak eta, hori ospatzeko, gaur 23.30etan kontzertua emango du Joseba Irazokik. Horrez gain, Tas Tas-en ateratako argazkiak dituztenei tabernaren Facebook-eko orrian zintzilikatzeko dei egiten diete. Hainbat opari zozketatuko dituzte.


1962-AN JAIOTAKOEN BAZKARIA


Aurten 50 urte bete edo beteko dituztenen bazkaria urriaren 20an izango da: 12.00etan Untzagan elkartu, talde-argazkia egin eta jarraian piskolabisa, txikiteoa, trikitilariak, bazkaria, dantzaldia... egongo dira. Izena emateko 80 euro sartu beharko dira Kutxako 2101 0035 11 0128245024 kontuan, izen-abizenak emanda.

CONCHI ALVAREZ SASETaren 1. URTEURRENA

"Beti izango zaitugu gure bihotzean"

Haren aldeko meza ospatuko da hillaren 20an (eguztenean), 19.00etan hasita, San Andres parrokan





Hiru argazki erakusketa ekainean

KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEKOEK ANTOLATUTA, ekainaren 30era arte honako argazki erakusketak egongo dira ikusgai: Inhar Mutiozabalen "Ya no quedan Maharajás", Portalea tabernan, Patxi Badiolaren argazkiak Klub Deportiboan eta Alvaro Arroyorenak El Ambigú tabernan.



71 txori lehiatu ziren Arraten

EIBARKO TXORI LAGUNAK ELKARTEKOEN ESKUTIK, DOMEKAN Arraten XIII. Eibar-ko Hiria Txori Kantarien Txapelketa, J.J.J. Memoriala jokatzen zen. Goizean goizetik hasi zen txapelketa, hego haizeak lagunduta, eta euria agertzearekin batera eguerdian amaitu. Kantabria, Errioxa, Madril eta Euskadiko 71 txori federatu lehiatu ziren eta probako epaileek, Euskadiko Ehiza Federazioko Josu Burgañak (karnabetan), Francisco Eskurzak (karnaba-mistoetan) eta José Angel Amestik (mahaiko-epaileak) jarraian ematen ditugun sailkapen eta puntuazioak erabaki zituzten: Karnabetan Kepa Arrizabalaga (Ondarroa, 79 puntu), Felix Miquelez (Logroño, 74 puntu), Jose Luis Fernandez Goikoetxea (Eibar, 69 puntu), Fernando Fernandez Egia (Ondarroa, 63 puntu), Da-



Irabazietako batzuk garaikurrekin. / LEIRE ITURBE

vid Cerdera Garcia (Logroño, 61 puntu), Jose Luis Fernandez Goikoetxea (Eibar, 56 puntu), David Cerdera Garcia (Logroño, 55 puntu), Fernando Fernandez Egia (Ondarroa, 53 puntu), Fco. Javier Luque (Eibar, 53 puntu), Felix Miquelez (Logroño, 49 puntu), Fernando Fernandez Egia (Ondarroa, 48 puntu) eta Antonio Alonso (Madril, 48 puntu). Eta karnabamistoetan Fco. Javier Luque (Eibar, 82 puntu), Fco. Javier Cayero (Gatika, 76 puntu),



Fco. Javier Cayero (Gatika, 67 puntu), Iñigo Perez (Eibar, 62 puntu), David Fernandez (Logroño, 60 puntu) eta Jesus Jimenez (Logroño, 57 puntu).


Irabazleek, probak amaitu eta hamarretakoa hartuta, Esther Kareaga Kultura zinegotziaren eskutik jaso zituzten garaikurrak. Antolatzaileek eskerrik beroena agertu nahi die txapelketa jokatzea posible egiten duten guztiei, bereziki Eibarko Udalarai eta Euskotren enpresari.

Garagardo Jaia martxa betean

MARTITZENAZ GEROZTIK ZABALIK DAGO EIBAR RUGBY TALDEAK URTERO ANTOLATU OHI DUEN Garagardo Ferixa, Untzagako karpan. Lehenengo garagardo kupela zabaltzeko ardura aurten Eibar Eskubaloi Taldekoek izan dute. Hilaren 17ra arte martxan egongo den Garagardo Ferixak egunero 19.00etan zabalduko ditu ateak eta bertan garagardo moeta ezberdinak dastatzeaz gain, ukondoa, saltxitxak eta oilaskobrotxetak jateko aukera izango da. Gainera, gauero, zuzeneko musika emanaldiekin girtuko dituzte afari eta afalosteak.



Eibar Eskubaloiak izan zuten kupela zabaltzeko ardura. / SILBIA HERNANDEZ



Kaosarenasoak.


Inmigratioari eskainitako jardunaldia

GAUR INMIGRAZIOAREN IN-GURUKO JARDUNALDIA HARTUKO DU GAZTETXAK: hasteko, 20.00etan "Sin os dejan", Bartzelonan grabatutako lana, jatorri ezberdineko etorkinen esperientziak jasotzen duen dokumentala eman go dute eta, 22.00etatik aurre-


ra, berriz, kontzertua eskainiko dute El Fuego Y La Palabra eta Kaosarenasoak taldeek. Bien bitartean elkartasun pintxoak egongo dira eta, antolatzaileek argitu dutenari jarraituta, batutako dirua "inmigratio legeak lagun bati eragindako gastuei aurre egiteko" erabiliko da.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, ENEKO Esteibar Peribáñez, domekan sei urte beteko dozuz-eta. Familixaren eta, batez be, gurasuen eta Jon anaixaren partez.



Ongietorri, EKHI Castro, maiatzaren 24tik gure artian zagozelako. Pozez txorutzen dagan famelixa guztiaren partez.




Zorionak, MAULE Bernedo, hillaren 19xan bi urtetxo beteko dozuz-eta, neska haundi! Laztan potolo bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, amama MARIA, domekan urtiak egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren, batez be, Ane, Josu, Maria, Aimar eta Endikaren partez.




Zorionak, MIKEL, bixar urtiak beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Ane eta Josuren partez.




Zorionak, UNAI, txapeldun, martitzenian bost urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat famelixa, lagun eta, batez be, Markelen partez.




Zorionak, IXONE, gaur gure etxeko printzesak bi urte egitten ditte-eta. Muxu haundi bat gurasuen partez.




Zorionak, MAIDER Arizmendiarieta, gaur zazpi urte egitten dozuz-eta. Aitta, ama eta ahizta Oihanaren partez.




Zorionak, MIREN, printzesa, atzo hamar urte bete zenduaz-eta. Zure ahizta Leire, garaso eta famelixaren partez.




Zorionak, MARKEL, astelehenian bost urte egin zenduaz-eta. Muxu bat etxekuen eta, batez be, Jonen partez.




Ongi etorri hillaren 8ttik gure artian dagan UXUE Agirregomezkorta Dieguezi, aitta, ama eta, batez be, MAIALEn partez.




Zorionak, FRANCISCA, bixar 95 urte beteko dozuz-eta. Zure seme-alaba, billoba eta birbilloben partez.




Zorionak, ALAITZ, hillaren 13an hamabi urte bete zenduaz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, JULIA, gure printzesa txikixak domekan bi urte egingo ditte-eta. Familixaren partez.



Zorionak, AITANA, aurreko domekan bi urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ANTONIO Ogiza eta ROSARIO Totorikaguena, bixar 50. ezkontza-urteurrena ospatuko dozue-eta. Familixaren partez.


z i n e a C o l i s e o a n

(1 ARETOAN)

15ean: 22.30
16an: 19.45, 22.30
17an: 20.00
18an: 20.30

"Profesor Lazhar"

Zuzendaria: Philip Falardeau



(2 ARETOAN)

15ean: 22.30
16an: 19.45, 22.30
17an: 20.00
18an: 20.30

"Infiltrados en clase"

Zuzendaria: Phil Lord



(ANTZOKIAN)

15ean: 22.30
16an: 19.45, 22.30
17an: 20.00
18an: 20.30

"Project X"

Zuzendaria: Nima Nourizadeh



Zorionak, IÑAKI eta AMAIA, ekaiñaren 12xan 30 urte izan ziran-eta ezkondu ziñaziela. Nerea eta Mireia zuen alaben partez.

horoskopoa

ARIES

Abentura zirraragarria biziko duzu domekan. Egun lasaia izatea espero bazenuen, presta zaitez, ez baituzu atsedenerako denborarik izango.

TAURUS

Tentazio handia izango duzu itxulapikoa apurtzeko, baina izan pazientzia, hor aurreztutakoak askorako balioko dizu-eta!

GEMINI

Laguntza ekonomiko handia jasoko duzu eta aspaldian buruan zeneukan gauza bat egin ahal izango duzu. Hori bai, baten bat gonbidatu dezakezu.

CANCER

Eztulak lagunduko dizu aste osoan zehar. Ez zara gaixo egongo, baina damutuko zaizu hainbeste izotz edatea: benetan damutu ere.

LEO

Hobe duzu helburu handirik ez ipintzea, horiek lortu ezean behera baitzatoz. Saiatu eta egin aurrera, biharkoan askorik pentsatu gabe.

VIRGO

Izotz pixkatekin sendatuko duzu hartutako golpea. Begira ezazu nondik zabiltzan! Mimoak eskatzeko aitzakia paregabea, zalantza barik.

LIBRA

Pozez betetako egunak aurrean dituzunak. Dena alde izango duzu eta ezingo duzu gehiago eskatu. Nahi zenuena eskuetan edukiko duzu.

SCORPIUS

Ez zara oso umore onez ibiliko, baina ingurukoak animatzen saiatuko dira. Barreren bat edo beste eragingo dizute, ziur. Bizitza zoragarria da!

SAGITTARIUS

Gauzak non uzten dituzun ez duzu gogoratzen eta zoroaren pare ibiltzen zara horien bila. Beranduegi da ordenatua izaten ikasteko?

CAPRICORNIUS

Adostasun batera iritsiko zarete eta pozik geratu zarete alde biak. Errespetua erabiliz gero urrun heldu zaitezke la ikasiko duzu.

AQUARIUS

Kirola egiteko asmoa duzula zabaldu lau haizetara eta beti daukazu etxean geratzeko aitzakiaren bat. Tira, ez dizu kalterik egingo kirol pixka batek.

PISCIS

Zure begiek distira berezia daukate azken egunotan eta arrazoi sendoa dago hori horrela izateko. Zeinen polita den maitasuna, ezta?

Barixakua 15**SQUASH-A**

18.00.- Eibarko Hiria Squash Saria. Aurreko kanporaketak. Ipurua kiroldegian.

DANTZARI EGUNA

19.30.- Dantzari Eguna. Kezka Dantza Taldearekin. Untzaga Plazan.

INMIGRAZIO JARDUNALDIA

20.00.- Inmigratioari buruzko jardunaldia. Bideo-eztabaida: "Si nos dejan".

KONTZERTUA

22.00.- El Fuego y la Palabra (hip-hop punk) eta Kaosarenasoa (crustiecore). Gaztetxean.

BOXEOA

22.00.- Boxeo gaua. Antolatzailea: Gasteiz Sport. Astelena Frontoian.

KONTZERTUA

22.30.- Azkaite Pelox. Karrika tabernan.

Zapatua 16**MUSTRA TXAKURRAK**

09.00.- Probintzia mailako txapelketa. Izen-ematea: 08.00etatik 09.00etara. Arraten.

SORKUNTZA FEMINISTA

10.30.- Hainbat tailer, emakumeen sorkuntza aldarrikatzeko. Anbulategi pareko parkean.

TIRO TXAPELKETA

11.00.- San Juan XXI. Tiro Txapelketa Haizezko Armekin, Dinbi-Danbarekin. Hezkuntza Esparruan.

KONTZERTUAK

11.30.- Musikum-eko ikasleen ikasturte amaierako jai. 3tik 6 urtera arteko biolinak.

17.30.- Gitarra, bateria eta pianoa. El Corte Inglés-ean (3. solairuko terrazan).

WESTERN JAIALDIA

17.00.- Team Penning eta Cattle Penning erakustaldia (zaldiz western estiloan, arrantxoko lanak, zaldi-heziera). Zezen-plazan.

FEMINISMOA KONTU KONTARI

17.00.- Eibarko esperientzia feministen inguruko jarduna. Gaztetxean (Iparragirre, 2).

ARKU-TIROA

18.00.- Arku tiroa, Urko Arkularien Klubaren eskutik. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

SQUASH-A

18.00.- Eibarko Hiria Squash Saria. Finalak. Ipurua kiroldegian.

KONTZERTUA

23.00.- Kontzertua Amparo Sánchez-ekin. Jarraian, Arno DJa. Untzaga Plazan.

Domeka 17**ENBOLATUAK**

08.00.- Enbolatuak, Marqués de Sakako bigantekin. Zezen-plazan.

ARABA EUSKARAZ

09.30.- Araba Euskaraz-era (Bastidara) joateko autobusaren irteera (buelta 19.30etan). Ego Gainetik.

MOSAIKO ERRALDOIA

09.30.- Donostian (Saguesen) egingo den Aire Garbiak Bira Nazan mosaiko erraldoian parte hartzeko autobusaren irteera. Eggogainetik.

DUATLOIA

11.00.- Eibarko III. Txikien Duatloia. Eibar Triatloi Taldearen eskutik. Untzagatik.

GIMNASIA ERRITMIKOA

12.00.- Ipurua Gimnasia Erritmiko taldearen erakustaldia. Untzaga Plazan.

ERREKORTADOREAK


18.00.- Errekortadoreen Jaialdia, Marqués de Saka Ganadutegiak antolatuta. Sarrera: umeendako 2'5 euro, helduendako 6 euro. Zezen-plazan.

HERRI-KIROLAK

19.30.- Euskal Jaialdia, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Untzagatik.

Martitzena 19**MAHAI-INGURUA**

19.00.- Osasunari buruzko mahai-ingurua, Ezker Batua Berdeak-ek antolatuta. Portalean.

**Eguaztena 20****KONTZERTUA**

18.00.- Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako talde modernoaren kontzertua. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

KONTZERTUA

19.00.- Untzaga Jubilatuta Etxekoaren kontzertua. Sarrera: Euro bi. Coliseo Antzokian.

Eguena 21**SANJUANAK**

11.00.- Tertulia-kafea: "Medikuntza alternatiboa". Klub Deportiboan.

UMEENDAKO JOKOAK

17.00etatik 20.00etara.- Umeendako puzgarriak eta zezen mekanikoa, Astixaren eskutik. Untzaga Plazan.

BERBENA

18.00etatik 20.00etara.- Umeendako berbena Arno Djarekin. Untzaga Plazan.

BALLETA

20.30.- Eibarko Ballet Taldearen emanaldia. Sarrera: 3 euro. Coliseo Antzokian.



erakusketak

- Ekainaren 15era arte
UNTZAGAKO JUBILATU ETXEKOen jostintza eta puntu erakusketa. *Untzagako Jubilatut Etxean.*
- Ekainaren 17ra arte
IÑAKI ARIZMENDIren "Arizmendi se regodea" erakusketa. *Topalekuan.*
- ZERAMIKA, MARRAZKI ETA PINTURA UDAL ESKOLETAKO** ikasturte amaierako erakusketa. *Portalean.*
- Ekainaren 30era arte
INHAR MUTIOZABALen "Ya no quedan Maharajás" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- PATXI BADIOLA**ren argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
- ALVARO ARROYO**ren argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*

farmaziak

- 15, barixakua**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 16, zapatua**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
- 17, domeka**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 18, astelehena**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 19, martitzena**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 20, eguaztena**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 21, eguena**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 22, barixakua**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..929 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

JAIOTAKOAK

- Jon Gastesi Opazo. 2012-VI-2.
- Nabil Mansouri. 2012-VI-4.
- June Morán Ruiz de Cenzano. 2012-VI-6.
- Oier Miguel Caravantes. 2012-VI-7.
- Unax Caño García. 2012-VI-7.
- Uxue Agirregomezkorta Diéguez. 2012-VI-8.


HILDAKOAK

- Ana Isabel Beistegi Arzuaga. 55 urte. 2012-VI-7.
- Victor Amesti Ibarguren. 77 urte. 2012-VI-8.
- Margarita Arrizala Galdos. 90 urte. 2012-VI-10.
- M^o Jesus Garate Garate. 89 urte. 2012-VI-11.
- Avelino Ekiza Carlos. 85 urte. 2012-VI-11.
- Angelita Iñarra Trokaola. 95 urte. 2012-VI-13.

SUDOKUA

6	7						
	9			1	8		
3		9	6				
7			4		1	5	
	2		3			4	
	1	8		7			2
				1	2		5
	3		4				6
					9		7

DENBORAPASAK



AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Babes ofizialeko pisua salgai Amanñan. Tel. 636-458967 eta 650-497992. Rikardo.
- Pisua salgai Errekatxu 6an. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna eta 7 m²ko terraza. Kalefakzioa. Eguzkitsua. Berriztua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.
- Pisua salgai Eibar erdi aldean (Ubitxa). 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Igoailua eta kalefakzioa. Bizitzera sartzeko moduan. Oso merke. Tel. 685-732596.
- Pisua salgai Eibar erdi aldean. 3 logela, egongela, sukaldia, komun bi eta trasteroa. 130 m². Igoailua. Guztiz berriztua eta argitsua. Tel. 626-203838.
- Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). Logela bi, egongela, sukaldia eta komuna. Igoailuarekin. 150.000 euro. Tel. 672-622774.

1.2. Errentan

- Cadizen apartamentua alokagai uztailean eta irailean, Sancti Petrin. 2 logela. Igerilekua. Padela. Tel. 644-546993.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 669-966611.
- Pisua alokagai Debako alamedan uztaile eta abuzturako. Berriztua. Prezio onean. Deitu 12.00etatik 17.00etara. Tel. 943-701394.
- Pisua alokagai Errekatxu 6an. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna eta 7 m²ko terraza. Kalefakzioa. Eguzkitsua. Berriztua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.
- Pisua alokagai Deban, Guipuzcoano Plazan. 2 logela, egongela handia (sofa-ohareekin), 2 komun, terraza eta garajea. Igoailua. Guztiz berriztua. Uztaile eta abuzturako -edo urte osorako-. Tel. 619-237449. Conchi.
- Pisua hartuko nuke alokairuan ahalik eta bizkorren Eibarren. Urgentia. Tel. 646-662911.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Karro-denda salgai. Oso egoera onean. Sekulako aukera. 1.200 euro. Tel. 617-808785.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Behaldea alokagai Ubitxan. 100 m². Argi-instalazioa eta komunarekin. Tel. 617-688311. Maria.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da kamarera edo jantokian jarduteko. 10 urteko esperientzia. Tel. 648-100546.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita udaran ere. Tel. 698-632922.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 645-366850.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-966611.
- Batxilergoa egindako neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 622-824468.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-311385.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-423493.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 677-860971.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixok zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernetan jarduteko. Tel. 699-232823.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Interno edo orduka. Tel. 628-014327.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 664-111706.
- Neska eskaintzen da arratsaldean eta asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 639-611454.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 608-431590.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko orduka. Tel. 634-007292.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da kamarero edo gidari-banatzaille jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 626-292587.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-531378 eta 690-861846.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-887814.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 636-922727.
- Neska eskaintzen da udan kamarera jarduteko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 617-949471.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, Edozein ordutegi eta eguntan. Tel. 689-847947.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 646-821678.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 686-077316.
- 34 urteko neska euskaldun ardurasua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioa eta esperientzia. Tel. 650-455685.
- Emakumea eskaintzen da goizez edozein lanetarako. Tel. 943-127018 eta 635-555040.
- Hezkuntza Esparruan bizi den neska arduratsua eta dinamikoa eskaintzen da umeak zaintzeko. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 658-757251.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 654-349366.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 696-509360.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 695-303534.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixok zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.

4.2. Langile bila

- Sukaldaria eta garbitzaileak behar dira laster zabalduko den zentroan. Bidali curriculum eta argazkia: Eibar-ko 403 posta-kutxatila.
- Fisioterapeuta eta kiromasajista behar dira Eibarko ilepaindegi batean. Lan-giro bikaina. Tel. 678-674250.
- Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko. 4 ordu. Tel. 678-386033.
- Sukaldaria behar da jatetxe batean. Esperientziarekin. Tel. 654-958684.
- Kamarera/o euskalduna behar da. Tel. 943-201537.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Euskara klaseak ematen ditut: azterketen prestaketa, EGA, Haberen mailak... Tel. 620-608065.
- Batxilergoa egindako neska eskaintzen da partikularrek emateko. Tel. 622-824468.
- Ordenagailua erabiltzen irakasten dut: internet, korreo, web orriaren diseinua. Merke. Tel. 679-740061.
- Biolin klaseak ematen dira. Adin guztietako ikasleak. Metodo erraza eta dibertigarria. Merke. Tel. 679-740061.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Erreproduzitzeko Fonestar-mahai bikoitza salgai. Taberna eta pub-etarako aproposa. Bozgorailu eta argiekin. Tel. 648-100546.
- Haririk gabeko inalanbrikoa (Pana-sonic markakoa, 20 euro) eta MP4 (erabili gabe, 25 euro) salgai. Tel. 943-120030.
- Bigarren eskuko Bugaboo Camaleón (patinete eta guzti) eta mendiko motxila (umea eramateko) salgai. Tel. 686-703907.
- Setter txakurra salgai. Oilagorretarako prestatua. Tel. 649-258913.
- Ehizarako eskopeta "superpuesta" salgai. Tel. 649-258913.
- Ohetik altxatzeko garabia salgai. Invacare markakoa. Oso berria. Ikusteko aukera. 650 euro. Tel. 943-203868.
- Gurpildun silla estua salgai. Berria. Tel. 661-164231.

6.2. Eman

- Baserrian jaiotako katakumeak oparitzen dira. Tel. 646-601923.

6.4. Bestelakoak

- Egunero Eibartik Gasteizera lanera joateko autoa konpartituko nuke. Gasteizen 07.45etan sartu eta handik 14.45etan irtetzeko. Tel. 657-779650.
- Ordua edo terrenoa erosiko nuke Ermutik gertu. Tel. 627-833274.

EIBARKO EROSKI
Hipermerkatua
Tel. 943-82-04-72

Sanjuan zoriontsuak!!



“HAURRENTZAT Marrazki Lehiaketa San Juan 2012”

zurekin

Ekarri zure marrazkia Informaziora **ekainaren 22a baino lehen** eta parte hartu gure lehiaketan. Irabazleek hondartzako jostailuak jasoko dituzte.

...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu
tzu
zerbitzua



- Urte askotako **ESPERIENTZIA** dugu.



- Bezeroaren beharretara **EGOKITU**ko gara.


elkartea@etakitto.com




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA


EUKi

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

ZEZEN BIDE



AUTO ESKOLA



ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR

